

ZIRTAK

Julen Galbira

IDAZLEA

Diogenesen oroitzapenak

Badut lagun bat, lanbidez informatikaria, denbora ordenagailuka neuritzen duena. Aurreko batean, gazte-garaiko kontu bati buruz ari ginela, halaxe esan zidan: “Hori aspaldi gertatu zen... gutxienez duela zazpi ordenagailu”. Nik barre egin nuen, baina lagunak serio bota zuen esaldia, mundua mugitzen duen denbora-unitate bakarra hori dela dakienaren segurtasunez.

Gero, ordenagailuen memoriari inguruan hasi zitzaidan, ondoegi ulertu ez nuen tonu teknikoan; ondoren, ahotsa apalduz, aitortu zidan berak jada ez duela inongo konfiantzarik bere buruarengan, eta ordenagailuen memoria erabiltzen duela dena gogoratzeke: ez soilik telefono zenbakiak, agendako zereginak edo lagunen urtebetetzeak, baizik eta dena, bere bizitza osoaren kontaduria. Ikusi dituen pelikulak eta ikusi nahi dituenak, egin beharreko erosketak, egunez eguneko bizipenak, inoiz gertatuko diren ez dakigun egoera hipotetikoaren aurrean egin beharrekoa, oporretan bisitatutako lekuak, gogoratu beharreko datu eta albisteak, bururatutako ideiak, ingurukoekin izandako elkarrizketak. Nire lagunak dena gordetzen du ordenagailuan; ba ote tramankulu hoberik norberaren mundua ordenatzeko. Diogenesen sindrome moduko bat dauka, gogoratu beharreko guztia gordetzera bultzatzen duena. Burua toki txikiegia baita bururatzen den guztia gordetzeko.

Nik ere aspaldi utzi nion nire memoriarekin fidatzeari, baina are gutxiago fidatzen naiz nire-nireak ez diren memoriarekin. Saiatzen naiz, adibidez, argazkiak nonbaiten gordetzen, baina CD, pendrive, disko gogor eta abarretan sartzen ditudanean, betiko gordeta ote dauden zalantza sortzen zait, eta pentsatzen dudanean Interneteko hodeian ere gorde ditzakedala, ikara batek hartzen nau, ezin asmatuta non




INIGO AZKONA

geldituko diren, linboko zein solairutatik zintzilik. Dena baita linboa, hauskorra gainera, kontrolaezina eta, errematerako, ukiezina. Nahiz eta, egia esan, izatez, oroitzapen gehienak, buruan gordetakoak ere bai, beti daude linboan, beti dira hauskorrak eta ukiezinak. Burua ere birtuala da, eta horrek ez nau batere lasaitzen.

Behin, Guardia Zibilak kontrol batean gelditu ninduen; nik, koadernoetan erdi amaituta neukan nobela osoa galtzearen beldurrez, aulki azpian ezkutatu nituen blokak, baina poliziek dena miatu eta koadernoak topatu zituzten. Galdetu zidaten zer neukan han apuntatuta, hain ondo ezkutatuta eramateko. Esaten nuena esanda ere, ez zidaten sinetsiko, eta, beraz, egia aitortu nien: nobela baten kopia bakarra zela, eta galtzeko beldurratik ezkutatu nituela. Hori entzunda, koadernoak furgonetara eraman zituzten, eta desesperatuta pentsatu nuen modurik inozoenean galduko nuela urteetako lana eta nire memoriaren zati handi bat. Ez dakit zer gertatu zen furgonetaren barruan, baina, nire harridurarako, handik denbora batera, polizia batek itzuli egin zizkidan koadernoak. Eta nik, berriz ere arnasa lasai hartu arren, pentsatu nuen idaztea ere ahalegin antzua izan daitekeela memoriari eusteko lanean, koadernoak ere hauskorrak direlako, bereziki norbaitek hautsi nahi baditu.

Ez dut memoriarako euskarri fidagarriarik aurkitzen, baina agian neu nabil oker, inork ez baitu esan memoriak fidagarria izan behar duenik, edo benetakoa, edo egiazkoa. Memoria ipuin bat baino ez da, umeez eskatzen dutenean bezala eurei gertatutako pasadizoren bat behin eta berriro kontatzea, oroitzapenak narrazio bihurtuta. Kontua ez baita egia gogoratzea, baizik eta, sinpleki, ipuinean agertzea. ■

Memoria ipuin bat baino ez da, umeez eskatzen dutenean bezala eurei gertatutako pasadizoren bat behin eta berriro kontatzea, oroitzapenak narrazio bihurtuta. Kontua ez baita egia gogoratzea, baizik eta, sinpleki, ipuinean agertzea



irudia:
Antton Olariaga